

185. FITXA BIZKAIA – 2026ko ekitaldian euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, udal erakunde autonomoak eta mankomunitateak.

Sarbide-esteka: [Hasiera - Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#)

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2025 FORU DEKRETUA](#), abenduaren 4koa, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena. [Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2026ko ekitaldian euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten udalei, udal erakunde autonomoei eta mankomunitateei](#)

Eremuak: Euskara

Zenbatekoa: 700.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2026/01/12tik 2026/02/09ra arte, 13:30ean.

Laburpena

2026ko ekitaldian euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten udalei, udal erakunde autonomoei eta mankomunitateei zuzendutako dirulaguntzak dira.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko egiten diren proiektu eta jardura hauek jaso dezakete dirulaguntza:

- Toki-eremuko kultur, kirol, aisia eta astialdiaren arloko elkarteetan zein mugimenduetan euskararen erabilera sustatzen duten programak eta jarduerak, bereziki haur eta gazteen arlokoak, eta, oro har, HAKOBA Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak eta/edo Bizkaiko Euskara Bizia batzordeak lehentasunezko zat jotakoak, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartu dituenen. Horiez gainera, berariaz hartuko dira kontuan Euskararen Aholku Batzordeko barruko Ingurune Digitalean Batzorde-atal Bereziak ezarritako gomendioak euskara ingurune digitalean bultzatzeko.
- Hizkuntza sustatzeko estrategikoak diren toki-eremuko kolektiboetan euskararen erabilera

sustatzen duten programak eta jarduerak, edo bereziki eragin nahi den sektore jakinetan erabilera sustatzen dutenak, hala nola lan-munduan, etorkinen artean edo sare sozialetan.

- c) Toki-eremuko herritarrek euskara teknologia berrietan erabil dezaten sustatzeko programak eta toki-erakundeetako ezagutzari buruzko edukiak sarean jartzea xede duten Herripedia proiektuak.
- d) Tokian tokiko euskararen ondarea jaso, zaindu eta berreskuratu nahi duten programak, ondare hori gizartearen barruan erabili ahal izateko (kantuak, bertsoak, euskalkiak, etab.). Programok balorazio berezia izateko, nahitaezkoa izango da Euskaltzaindiaren edo Labayru Ikastegiaren aldeko txostena izatea, eta eskatzaileek eurek ekarri beharko dute. Onirizpena urtero ekarri behar da edo bertan zehaztu proiektuaren iraupena.
- e) Entitate eskatzaileak Aroa markoaren estrategikoaren ardatz, erronka, lan-ildo eta ekimenetan oinarritutako plan bat bere lurralde-eremuan gauzatu eta ezartzeko programak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzarako eskabidean aurkeztutako proiektuak **2026ko ekitaldiaren barruan** garatu beharko dira.